

txoritxoari mokoka

Hau esnea da!

Aspaldiko partez, euskarazko antzerkia ikusi dugu azken bi egunetan telebistan: *Komeriaka*. Bost emanaldi eskaini ditu Tentazioak ekoiztetxeak obra horrekin, eta hamar aktoreen bakarrizketak izan ditu ardatz nagusia. Emanaldi bakoitzeko, hamar horietako sei ikusi ditu ikusleak, emanaldi bakoitza ezberdina eginez. Hori bai, emanaldi guztietan Patxo Telleria eta Mikel Martinez aritu dira, «AEK-ko ikasle beteranoen» rolean, obraren osagarri barregarria bilakatuz. Hamar bakarrizketak es-



INIGO AZKONA
Mikel Martinez eta Patxo Telleria *Komeriaka*-n.

kaini dizkigu ETB1ek, antzokian obra ikusi zuenari ere lan berriak eskainiz. Telleria-Martinez euskaldun berri bikoteak esango lukeen bezala, «hau esnea da!» —edo «*hau laletxe da!*», nahiago bada—. *Komeriaka*-ren eman-kizuna amaitu berri den Korrika 12ren jarraipen akordioaren barruan sartu dute, eta, zeharka bada ere, antzerki telebisatuaren itzulera ekarri digu. Ez da azken egunotako bakarria izan, ordea. *Sautrela* ere itzuli zaigu, bere literatura ekarpenari uzten dioten heinean eutsiz. Bi itzulerok pozgarria egin didate aste hasiera, eta telebista ikusteko gogoz ibili naiz. Ez ahal zaigu poz hau guztia, esnea bezalaxe, berehalakoan minduko!

Amagoia Iban

LABURAEAN

Silvio Berlusconi Espainiako T5ko %80a kontrolatu zuen 1991 eta 1995 bitartean

Italiako *La Repubblica* egunkariak argitaratu berri duen agiri baten arabera, Silvio Berlusconi enpresari eta politikariak Espainiako T5 katea ia oso-osorik kontrolatu zuen 90eko hamarkada hasieran. Fininvest taldearen bitartez akzioen % 80 kontrolatzen zituen, eta lege ez ingo lituzke % 25 baino gehiago izan. Fininvest taldeak, gainera, bazkide batzuk zituen kontrola errazago egin ahal izateko: Javier de la Rosa, Kirch, ONCE eta Luxenburgoko Nazioarteko Bankua.

EITBk EAEko bozei buruzko informazioaz jantzi du bere webgunea

Euskal Irrati Telebistak Internetarako webgunea indartu du, EAEko hauteskundeen gaineko atal berriarekin. Maiatzaren 13a bitartean, EAEko Legebiltzarreko hauteskundeen inguruko informazio zehatza eskainiko dute, eta hauteskunde gauean emaitzak jakin bezain pronto sartuko dituzte bertan. Era berean, bost lehendakari gaiei buruzko biografiak aurki daitezke www.eitb.com/euskara/hedabideak helbidean. Eta 1980tik hona izan diren emaitzak azaltzen dira, alderdien bilakaera grafikoen bitartez erakutsiz.

Paris-Roubaix lasterketari buruzko dokumentala F3 katean

Les dossiers de l'histoire saioaren barnean, Paris-Roubaix txirrindulari probari buruzko erreportaia emanen dute gaur gaueko 23:20ean Frantziako F3 katean. Zolatutako kilometroetako irudiak nabarmenduko dira bertan.

ETB1. Gaztea sarien banaketa emango dute gaur 23:30ean



EDURNE KOCH
Euskal paralinpiarrek jaso dute Euskadi Gaztearen eskutik urteko kirolari onenaren saria.

Urteko gazte onenak

Euskadi Gazteak Euskal Herrian gehien nabarmendu direnak saritu ditu

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Euskal Telebistaren lehen kateak Euskadi Gaztea irratiazen Gaztea sarien banaketa emango du gaur gaueko 23:30etik aurrera. Aurretik, *Hasiberriak* tele-sailaren bi atal jarraian emango dituzte, asteko lau emisioak osatzeko. Jaialdia Itziar Alduntzin eta Joseina Etcheberriak aurkeztu zuten, joan den ostegunean, eta bertan Asgarth musika taldeak jo zuen.

Duela lau urtetik hona, Euskadi Gazteak urte osoan Euskal Herrian gehien nabarmendu diren pertsonak saritzen ditu, eta aurten guztira zortzi sari banatu dira. Beti Gazte saria

zituzten beste bi aukerak Eraso taldearen *Erantzunik gabe* eta Lau Behi taldearen *Gaur gauean* ziren. Plazara! Gaztea sariak iaz komunikabideetan, kulturen edo arte eszenikoetan gailendu diren pertsonak goraipatu ditu. Unax Ugalde eta Barbara Goenaga aktoreek jaso dute saria, Anjel Alkain eta Asier Hormaza, eta Bilboko Kafe Antzokia atzean utzita. Kirolari onenaren saria euskal paralinpiarrentzat izan da. Musikan, aurtengo aurkikuntza izan den taldea Asgarth izan da. Bestalde, Euskadi Gazteak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintzetarako Zuzendaritzaren laguntzaz, ezker alde eta meatzaldeko eskauten elkarteari eman dio Elkartasunaren Gaztea saria, milioi bat pezetako diru saria.

RADIO EUSKADI



EITB
Almudena Cacho.

'Boulevard magazine' irratsaioa Baionatik egingo dute

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Radio Euskadiko *Boulevard magazine* irratsaioa Baionatik zuzenean egingo dute gaur goizean, 10:00etatik 13:00etara. EITBren egoitza berritik zuzenduko du saioa Almudena Cacho kazetariak, eta instalazio berrien inaugurazioa arratsaldeko 17:30ean izanen da. EITBren egoitza zaharrak kalte ugari izan zituen iazko urrian eraso baten ostean. Gaur goizean egingo den hiru orduko saioari dagokionez, Iparraldeko hainbat pertsonaia elkarriketatuko dituzte; Francois Maitia bozeramaile sozialistak euskal departamenduaren inguruan hitz egingo du, France3 TV kateko Allende Boutin bere kazetari lanaz arituko da, Euskal Kultur Erakundeko Pantzike Maitia euskararen egotz mintzatuko da, Beñat Achiary kantariak atera berri duen diskoaz hitz egingen du (*Euskal Kantak* bilduma). Eta beste hainbat gai ere jorratuko dituzte gaur goizean Baionan Almudena Cachok eta bere taldeak.